

Diagnosia egiteko tresna bat: kontrol-zerrenda

(Alejandro Campo)

Tresnaren deskribapena

Diagnosia egiten hasteko era xume bat da ikastetxe bateko antolaketako atal nagusiak ikustatzea. Azterketa horrek errazten du asebetetzearen eta arduraren ikurrak antzematea erakundearen osasunean. Mediki-azterketa edo ibilgailuen azterketa teknikoaren antza du. Batean zein bestean laster berrikusten dira segurtasunari eta jarduerari dagozkien atal nagusiak eta ezartzen da berehalako zuzenketa edo arazoaren azterketa sakonagoa. Ikastetxe bateko konplexutasuna zeharo ezberdina den arren, konparazioak errazten du ulertzea **tresna arin honen** izaera, erakundearen osasun-maila zehazteko oso baliogarria dena.

Helburua

Ikastetxeko jardueran guztien kezka bera sortarazten duten atal orokorrak detektatzea eta horiek hobetzeko proposamenak planteatzea.

Hezkuntza-komunitatearen parte-hartzea

Zehaztu beharreakoa da zein pertsonari edo talderi iritzia eskatuko zaion: Ikastetxeko Curriculum Proiektua, zikloak, mintegiak, guraso elkarteak,...

Testu-ingurua

Talde aztertzailearen adostasuna nola edo hala beharrezkoa da, azaleko azterketa horri "hastapeneko diagnosia"ren balioa emateko. Hau da, zerrendako atal bakoitzaren balorazioak behar du horretarako taldearen onarpena. Eta gauza bera, zerbait berrikusi edo jardueraren auditoria egin behar den kasuetan. Kezka sortarazten duten arloetan azterketa sakonagoa egin beharko da, horiek izango direlako hobekuntza beharko dutenak.

Astia

Ordu erdi bat.

Materiala

"Kontrol-zerrenda"-ren ale bana partehartzaile bakoitzarentzat.

Gauzatzea

Zerrendako atal bakoitza banan-banan aztertzen da eta bakoitzari nor bere balorazioa ematen dio, eskala honen arabera: +2: oso ongi, +1: ongi, 0: hala-holakoa, -1: gaizki, -2. oso gaizki. Lehen momentuan ez da beharrezkoa atalak sakon ezagutzea, irakasle guztiek nahiko ezagutzen dituztelako gaiak. Kasu batzuetan komenigarria izango litzateke balorazioa beste talde batzuk ere egitea, ikasleek edo gurasoek esate baterako. Beste batzuetan, ordea, taldearen kide kopurua murriztu liteke, azterketa zuzendaritza-taldeak edo batzorde pedagogikoak soilik egin dezaketeelako.

Azkenean emaitzen zenbaketa egiten da, eta taldean aurkezten direnean, azpimarratzen dira asebetetzea adierazten duten arloak edo azterketa sakonagoa edo berehalako eskuhartzea behar dutenak.

Proposatzen diren [adibide 1](#) eta [adibide 2](#)-etan agertzen diren zerrendako atalei ikastetxe guztiek balio berbera ematen ez dietenez, zerrenda hori ikastetxe bakoitzari egokitu lekioko (atalak deuseztatzen, beste berri batzuk txertatzen, tresnaren erredakzioa aldatzen, etab.), ematen duen hezkuntza maila, kokatua dagoen ingurua eta hezkuntza proiektua kontuan harturik.